# Atabal

JANVIER-AVRIL | URTARRILA- APIRILA
2017



Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# Le mot de la Présidente Lehendakariaren hitza

Une question : au fil de notre évolution, est-ce que le cerveau humain a augmenté en Volume ? Non, depuis l'apparition de l'être humain sur terre, le cerveau humain aurait diminué en taille, et ce de 15 %.
Une explication possible ? Nous sommes de plus en plus spécialisés. Nous avons des métiers de plus en plus pointus. Autrefois un individu devait avoir l'ensemble des connaissances pour survivre.
Aujourd'hui, on ne comprend pas le quotidien de l'autre. On ne connaît pas la réalité de son métier. On ne connaît pas sa différence.

C'est sur ce constat là que Brian Eno débutait sa conférence au Sonar Festival 2016 de Barcelone. Il concluait sur l'importance de l'art et de la culture, non pas comme un atout supplémentaire, mais comme une nécessité pour enfin vivre la même chose.
La culture est une conversation, un ressentir ensemble. Elle fédère. Elle est essentielle.

C'est ce que l'on retrouve dans nos concerts et dans bien d'autres de nos projets car Atabal est bien plus qu'une salle de concert.
Pour exemple, ce projet qui liait la création d'une ou plusieurs œuvres musicales, la réalité d'un atelier d'écriture, et l'apprentissage de la voile. Un projet mené en partenariat avec Maria Pia, l'artiste David Cairol et l'école de voile Spi en Tête, l'objectif était l'élaboration d'une création musicale montée au grès des étapes du voilier, d'Hendaye à San Sebastien, en passant par Pasaia et Getaria.
On coupe les jeunes de leur environnement familier, on les fait collaborer ensemble pendant quatre jours sur un bateau avec, à l'issu, un enregistrement à Atabal.

Atabal, outil culturel essentiel de notre territoire, crée du lien, des expériences, une aventure. Derrière la mission publique officielle d'Atabal, notre rôle est de rappeler qu'avant tout, on est quand même dans le même bateau.
Reste à saisir cette invitation à vivre le prochain trimestre Atabal ensemble.
A vos programmes !

Sylvie Claracq
Présidente d'Atabal
Déléguée à la Jeunesse et à la Vie Scolaire de Biarritz

Galdera bat : gizakiaren eboluzioan zehar, giza garunaren bolumena handitu ote da ? Ez. Lurrean gizakia agertu denetik, giza burmuinaren bolumena ttipitu omen da, %15 gainera.
Zein da horren azalpena? Geroz eta berezituagoak garela. Lanbide geroz eta zorrotzagoak ditugula. Lehen, bizirauteko, pertsona batek jakitate guztiak bildu behar zituen.
Gaur egun, ez dugu bestearen egunerokoa ulertzen. Ez dugu bestearen lanbidearen errealitatea ezagutzen. Ez dugu bestea gugandik ezberdintzen duena ezagutzen.

2016ko Bartzelonako Sonar Festibalean, Brian Eno musikariak hitz horiekin hasi zuen bere mintzaldia. Artearen eta kulturaren garrantzia azpimarratuz bururatu zuen. Ororen buruan, gauza beraren bizitzeko premia gisa ulertzen ditu eta ez abantaila gehigarri soil baten gisa.
Kultura elkarrizketa bat da. Kultura elkar eta elkarrekin sentitzea da. Kulturak elkarretaratzen du. Kultura funtsezkoa da.

Hori da gure kontzertuetan eta gure beste proiektu anitzetan aurkitzen duguna. Izan ere, kontzertu aretoa baino askoz gehiago da Atabal.
Adibidez, musika obra baten edo gehiagoren sorkuntza, idazketa tailer baten errealitatea eta itsas belaren ikastea biltzen dituen proiektua, esate baterako. Maria Pia Gizarte Zentroarekin, David Cairol artistarekin eta Spi en Tête itsas bela eskolarekin elkarlanean burututako proiektua izan da. Hendaia, Pasaia, Donostia eta Getariatik iragan den itsas belaren geldialdien arabera, helburua kantu baten sortzea izan da.
Gazteak ohiko ingurumenetik kanpo jarri ditugu, lau egunez itsasontzi baten gainean elkarlanean jarri ditugu, eta, bukaeran, Atabalen, grabatzeko aukera eskaini diegu.

Atabal, gure lurraldeko funtsezko kultur tresna da. Loturak, esperientziak, abenturak sortzen ditu. Atabalen eginkizun publiko ofizialaren gibeletik, lehen-lehenik, belaontzi berean sartuak garela oroitaraztea da gure zeregina. Hortaz, Atabalen, hurrengo hiru hilabetekoa elkarrekin iragateko gomita luzatzen dizuegu.
Liburuxkan bada zer ikusi!

Sylvie Claracq
Atabaleko lehendakaria
Biarritzeko Eskolako bizia eta Gazteria arduraduna

*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Infographie* **Malvina Hubert** *Infografia*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.ladinamo.fr** *Inprimatzea*
*Visuel Couverture* **MalOjo** *Azaleko Irudia*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave - D. Pernaud** *Argazkiak*

**Atabal** 37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr

**DIMANCHE 15 JANVIER 09:00-18:00 URTARRILAK 15 IGANDEA**

# SALON DU DISQUE #8

## DISKO AZOKA



Dans le frénétique Pays Basque, le Salon du Disque offre une échappée vintage, une escapade culturelle aux confluents de la musique et de la littérature. Disquaires, labels et libraires régionaux se retrouvent durant cette journée afin de partager des pièces dignes de grands crus. Dans la pure culture vintage, amoureux des vinyles ou simples curieux se mêlent pour chiner et découvrir des perles musicales. Au détour d'ateliers et d'animations, chacun pourra découvrir et apprécier la musique de plus près. Dans tous les styles et supports, le Salon du Disque est une rencontre, un appel à la flânerie et à l'aventure musicale au cœur d'Atabal.

**SIESTES MUSICALES**
Installé dans un transat, laissez-vous emporter à l'occasion de découvertes sonores proposées par **SAKYA**. (20 min - gratuit - sur réservation) 3 séances **11:00 14:00 15:00**

**CONCERTS**
**15:00** Atelier ROCK ESKOLA
**15:45** CHATS-TEIGNES

**Renseignements et Réservations**
serviceciviqueprojets@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

Eromenezko Euskal Herri honetan, Disko Azokak kultur ihesaldi aparta eskaintzen du. Musikaren eta literaturaren bateragunea da Disko Azoka. Egun horretan, eskualdeko diskoetxeak, disko saltzaileak eta liburu saltzaileak kalitate handiko obrak eskaintzeko elkartzen dira. Vintage kulturari jarraikiz, biniloen maitale edo jakingura duen pertsona orok zaharkitegietan miaka ibiltzeko eta harribitxiak aurkitzeko aukera badu. Tailer eta animazio ezberdinen artean, musika hurbilagotik ezagutzeko eta entzuteko parada izango duzue. Musika estilo guztiak, euskarri mota orotan. Disko Azoka topaketa bat da. Atabalen, ibilaldi goxo baten egiteko eta musika abentura baten bizitzeko parada da.

**MUSIKA ETZANALDIAK**
Etzaulki batean instalaturik, **SAKYA** taldeak eskainiko dituen soinuen artean, laxa zaitezte. (20 min - urririk - lekua erreserbatu behar da) **11:00 14:00 15:00** 3 saio

**KONTZERTUAK**
**15:00** ROCK ESKOLA Tailerra
**15:45** CHATS-TEIGNES

**Xehetasunak eta erreserbatzeak**
serviceciviqueprojets@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

I gratuit / urririk

## JEUDI 19 JANVIER 19:00 URTARRILAK 19 OSTEGUNA

# ATABAL LIVE !

## FRANCE BLEU PAYS BASQUE






*La 1ère radio du Pays Basque innove dans son soutien à la scène locale en organisant en partenariat avec Atabal, le centre de Musiques actuelles implantée à Biarritz, un 1er concert privé réservé aux auditeurs et aux partenaires de la radio.*

**DAVID CAIROL** De la soul, de la pop et des influences afro-caribéennes, sur fond de textes ciselés. Un artiste charismatique, une musique remplie d'âme.

**KÉPA** Entre blues rural et rock'n'roll minimaliste, le one man band de Képa propulse l'auditoire sur les bords du Mississippi sans que l'on ait à bouger.

**NICO'O & THE KAPIOLANI BOYZ** Un quatuor qui mixe avec puissance le folk, le reggae, le funk et la musique du pacifique.

**PETIT FANTÔME** «PETIT FANTÔME hante les jours doux, les nuits sombres, les jours tristes et les nuits joyeuses de tous ceux qui l'ont déjà écoutée» *Les Inrocks*

*Ipar Euskal Herriko irrati nagusiak tokiko musika taldeak sostengatzeko proiektu berria dakar. Hala, Biarritzen kokatua den eta gaur egungo musiken aretoa den Atabalekin partaidetzan, irratiaren entzuleei eta partaideei zuzendutako kontzertu pribatua antolatzen du.*

**DAVID CAIROL** Soul, pop eta afro-karibear musika eraginak uztartzen ditu. Musika sakona eta hitz landuak ditu. Artista karismatikoa da.

**KÉPA** Blues musikaren eta rock'n'roll minimalistaren artean, behatz bat mugitu gabe entzuleak Mississippi ibai bazterrera eramaten ditu Kepa talde-bakarlariak.

**NICO'O & THE KAPIOLANI BOYZ** Folk, reggae, funk eta Ozeano Pazifikoko musikak manera indartsuan nahasten dituen laukotea da.

**PETIT FANTÔME** «PETIT FANTÔME jadanik entzuna dutenek, egun goxoetan, gau ilunetan, egun tristeetan eta gau alaietan, mamu ttipiaren musika maiz erabiltzen dute buruan» *Les Inrocks*

Invitations sur *France Bleu Pays Basque* et *francebleu.fr*
Gomitak *France Bleu Pays Basque* irratian eta *francebleu.fr* webgunean eskuragarri

## DIMANCHE 22 JANVIER 18:00 URTARRILAK 22 IGANDEA

# HEGALALDIA #4
# MONDKOPF PRÉSENTE AUTRENOIR

Présenté par **ATABAL**, **EUSKAL HERRIA ZUZENEAN**-ek aurkezturik
Projet soutenu par le **CNV** et **Région Aquitaine** - **CNV zentroak** eta **Akitaniako Eskualdeak** sostengatutako proiektua.






*Atabal et EHZ se sont associés cette année pour 4 dates exceptionnelles dans des lieux insolites, aux quatre coins du Pays Basque dans des lieux jusqu'ici inexploités musicalement.*

**MONDKOPF PRÉSENTE AUTRENOIR**
Autrenoir est l'alliance de Paul Régimbeau connu pour ses albums de techno cinématographique sous le pseudo Mondkopf et Greg Buffier venu du métal/post-hardcore (Saåad&Matisse). Sur une base de boite à rythmes puissantes et minimalistes, de guitare, de sons concrets et d'effets, elle se rapproche d'une version électronique du sludge. Le projet est accompagné des paysages surréels en noir et blanc de Grégoire Orio (As Human Pattern).

**GRAN VOLCANO Eruption** est une proposition expérimentale réunissant Arman Méliès et Franck Cazenave pour un véritable duo audio et visuel. Un musicien, guitares paysagistes aux contours abrasifs, un peintre, voyage hallucinatoire et transe méditative.

*Ipar Euskal Herriko bazter orotan eta ezohiko lekuetan 4 kontzertu berezi eskaintzeko asmoarekin, Atabalek eta EHZk bat egiten dute, aurten.*

**MONDKOPF PRESENTE AUTRENOIR**
Mondkopf izenarekin tekno zinematografiko diskoak kaleratu dituen Paul Régimbeau eta metal/post-hardcore eszenatik datorren Greg Buffier (Saåad&Matisse) artistek osatzen dute Autrenoir. Erritmo kutxa indartsu eta minimalistaren gainetik, gitarra, soinu zehatzak eta efektuak gehitzen dituzte. Sludge musikaren bertsio elektronikoa izan daiteke, nonbait. Zuzenean, pantaila batean, Grégoire Orio-k (As Human Pattern) sortutako paisaia surrealista zoragarriak ikus daitezke.

**GRAN VOLCANO Eruption** Arman Melies eta Franck Cazenave biltzen dituen eskaintza esperimentala da. Zinezko ikus-entzunezko bikotea osatzen dute. Alde batetik, paisaiak zedarritzen dituen gitarrista eta musikari bat. Bestetik, gogoeta, trantzea, liluramendua eta bidaiarako gomita luzatzen duen margolari bat.

ELEKTRO
DRONE

**- MUSÉE HISTORIQUE - BIARRITZ - MUSEO HISTORIKOA -**

♥♥♥
*Mondkopf*
*Arman Melies*

8€ unique bakarra

EHZ herri bat zuzenean

©Fortun

## VENDREDI 27 JANVIER 21:00 URTARRILAK 27 OSTIRALA

# DEATH VALLEY GIRLS
# + THE LOOKERS + VEGAN PIRANHA

Présenté par **ATABAL** & **MUSIQUE D'APÉRITIF**-ek aurkezturik






### DEATH VALLEY GIRLS

En provenance de L.A, Les «Death Valley Girls» se catégorisent elles-mêmes comme du «California Doom Boogie». Un brillant mix de The Cramps, Bikini Kill ou encore Black Rebel Motorcycle Club.

### THE LOOKERS

The Lookers promène sa pop classieuse-boogie qui tache des deux côtés de la frontière avec une authenticité et une énergie suscitant l'intérêt de toutes les générations. Admirateur de Television, The Beatles, Wilco et Pavement, le groupe vient de sortir son premier album.

### VEGAN PIRANHA

Début 2016 : 2 enterrements, Reviens et Doom Doom Tortuga s'arrêtent. Des cendres encore fraîches des groupes né VEGAN PIRANHA. Après 8 mois d'existence le groupe cumule déjà pas mal de concerts partout en Aquitaine et enregistre son premier album, du Hardcore 80 fait en 2016 !

### DEATH VALLEY GIRLS

«DEATH VALLEY GIRL» taldea Los Angelesetik dator. Taldeko neskek «California Doom Boogie» musika jotzen dutela diote. The Cramps, Bikini Kill edo Black Rebel Motorcycle Club taldeen nahasketa bikaina egiten dute.

### THE LOOKERS

The LOOKERS taldeak pop boogie musika dotore eta zikina mugaren bi aldeetan ezker-eskuin darabil. Taldearen indarrak eta egiazkotasunak belaunaldi guztietako publikoa erakartzen du. Television, The Beatles, Wilco eta Pavement taldeen miresleak dira The Lookers taldeko kideak.

### VEGAN PIRANHA

2016 urte hastapena. 2 ehorzketa. Reviens eta Doom Doom Tortuga taldeen amaiera izan zen. Talde horien hauts freskoetatik, VEGAN PIRANHA taldea jalgi zen. Zortzi hilabete berantago, taldeak Akitania osoan kontzertu ugari eskaini ditu eta lehen diskoa grabatu du. 2016an, 1980ko hamarkadako hardcorea !

ROCK
GARAGE

@Juan Lagarrigue

♥♥♥
*Thee Oh Sees*
*King Gizzard*

6€ unique bakarra
gratuit (adh-kide) urririk

*gratuit urririk*
*(adh-kide)*



# SAMEDI 28 JANVIER 20:30 URTARRILAK 28 LARUNBATA

# ROVER
## + BON AIR



**ROVER**
ROVER a sorti en 2012 un premier disque, sorte de fulgurance électrique viscérale, drapée d'un velours où il était possible de s'oublier. Quand on le rencontre, on ne peut s'empêcher de voir une silhouette à la carrure colossale et aérienne. Une voix d'ange qui résonne. «Let It Glow», son deuxième disque est gorgé de chansons cristallines ou rocailleuses peuplé des fantômes de Bowie et Lennon.

**BON AIR**
Une énergie solaire qui nous traverse le corps, une harmonie qui nous fait du bien, l'air de rien, comme une parenthèse enchantée, BON AIR nous livre ses chansons avec une grande simplicité, beaucoup d'amour et sans fausse note. Leur musique est teintée de folk, leurs gimmicks pop se retiennent dès la première écoute. On se surprend à sourire en les regardant. On oublie tout.

**ROVER**
2012 urtean, ROVER artistak lehen diskoa argitaratu zuen. Barne-barnetik jalgi tximista elektriko baten gisakoa zen diskoa, eta, aldi berean, ahanzturan erortzeko egokia den belus goxoz estalia bezalakoa. Berekin topo eginez gero, hedadura zabaleko eta itxura arineko pertsona bat ikus daiteke. Durundatzen duen aingeru baten boza du. «Let It Glow» bigarren diskoa abesti argiz eta latzez betea da. Bowie eta Lennon-en eraginak ditu.

**BON AIR**
Gorputz osotik iragaten den eguzki energia, on egiten duen harmonia goxoa. Ezustean, etenaldi loriagarri bat bezalakoa. Sinpletasun handiarekin, maitasunez betetako eta nota faltsurik gabeko kantuak eskaintzen dizkigu BON AIR taldeak. Taldearen musikak folk kutsua du. Beren pop melodiak entzun eta segidan gogoan atxikitzen dira. Haiei begira irria ezpainetan dugula ohartzen gara. Beste guztia ahazten dugu.

POP

♥♥♥
*Aaron*
*Benjamin Biolay*
*Girls In Hawaii*

19€ / 16€ (adh-kide) en loc-aurretik
22€ / 19€ (adh-kide) sur place-bertan

*ROVER ©Julien Mignot*

VENDREDI 03 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 03 OSTIRALA

# LES WAMPAS
# + POGO CAR CRASH CONTROL



**LES WAMPAS**
Nouvel album pour LES WAMPAS : une salve de pépites affreuses, sales et amusantes. Le tempo explose, la basse ronfle et les guitares rugissent, crachent, hoquettent un rock & roll - yéyé - punk qui ne s'embarrasse d'aucune règle. Après «Les Wampas font la gueule» en 2014 et un best of en 2015, le nouveau CD sera prétexte à renouveler le répertoire des concerts, emportements scéniques en perspective...

**POGO CAR CRASH CONTROL**
Les 4 musiciens de POGO CAR CRASH CONTROL imposent des textes en français, acérés et sans concession. L'énergie sur scène est époustouflante, avec des riffs indomptables et des larsens sauvages. Au bord de l'agonie à chaque fin de concert, « P3C » nous balance un rock garage enragé et convulsif dans la veine de Nirvana, Rage Against The Machine et Mudhoney.

**LES WAMPAS**
LES WAMPAS taldeak disko berri bat grabatu du: kantu itsusien, zikinen eta irrigarrien erauntsia. Erritmoa zapartatzen da, baxua burrunban ari da eta gitarrak orroaz ari dira. Neholako legerik onartzen ez duen rock & roll - ye-ye - punk musika jaurtitzen du taldeak. 2014an «Les Wampas font la gueule» eta 2015ean disko bilduma bat argitaratu ondoan, disko berri hau, kontzertuetako kantu sorta erreberritzeko aitzakia paregabea izanen da. Agertoki gainean, oldar bereziak aurreikus daitezke...

**POGO CAR CRASH CONTROL**
POGO CAR CRASH CONTROL taldeko 4 musikariek, kontzesiorik gabeko hitz zorrotzak kantatzen dituzte, frantsesez. Agertoki gainean, sekulako indarra agertzen dute. Gitarra riffak menderagaitzak dira, eta, larsen soinu salbaiek entzulearen belarriak txikitzen dituzte. Kontzertu bakoitzaren bukaeran, hilzorian aurkitzen ditugu. Nirvana, Rage Against The Machine eta Mudhoney taldeen bidetik, «P3C» taldeak rock garage errabiatua eta konbultsiboa jotzen du.

ROCK
PUNK

@Boul Rostan

♥♥♥
*Les Sheriffs*
*Berurier Noir*

17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik
20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

# SAMEDI 04 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 04 LARUNBATA

# ALPHA & OMEGA, JONAH DAN & ALPHA STEPPA MEETS EQUAL BROTHERS

Présenté par **EQUAL BROTHERS**-ek aurkezturik





Pour cette nouvelle session **DUB GREETINGS** du début d'année, c'est un live mix que l'on vous propose, avec pour la première fois au Pays Basque : **ALPHA & OMEGA**, **JONAH DAN** et **ALPHA STEPPA**.

**ALPHA & OMEGA** précurseurs du dub UK, ont forgé un son unique avec une base roots reggae anglais, inspiré des expériences trip-hop, jungle & ambient.

**JONAH DAN** est l'un des acteurs les plus complets du mouvement dub international et c'est en qualité de chanteur et de percussionniste qu'il fera vibrer le dancefloor !

**ALPHA STEPPA**, membre du collectif «Dub Dynasty», relie la musique qui a marqué son enfance à la nouvelle génération de Bass Music à laquelle il appartient.

La soirée se déroulera comme d'habitude dans la joie et la bonne humeur, au son de notre sono artisanale made in EH!!!

Urte hastapeneko **DUB BREETINGS** saio berri honetan, Euskal Herrian lehen aldikotz, DJ mix edo zuzeneko nahasketa berezia eskaintzen dizuegu : **ALPHA & OMEGA**, **JONAH DAN** et **ALPHA STEPPA**.

**ALPHA & OMEGA** taldea Erresuma Batuko dub musikaren aitzindarietarik bat da. Ingalaterrako roots reggae, trip-hop, jungle eta ambient musikak nahasten ditu.

**JONAH DAN** nazioarteko dub mugimenduaren eragile garrantzitsuenetarik bat da. Kantari eta perkusionista gisa dantzalekua sutan jarriko du!

**ALPHA STEPPA** «Dub Dynasty» kolektibo kidea da. Haurtzaroan entzundako musika belaunaldi berriko Bass Music soinuekin uztartzen du.

Hala, EHn eraikitako gure soinu sistemaren laguntzarekin, usaian bezala, giro on eta alaiko gaualdia iraganen dugu Atabalen !!!

DUB SOUND SYSTEM

❤❤❤
*Jah Shaka*
*Zion Train*

7€ en loc-aurretik // 10€ sur place-bertan
gratuit (adh-kide) urririk

# VENDREDI 10 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 10 OSTIRALA

# DAGUERRE
## + RUN CAROLINE

*En résidence de création du 06 au 10 février // Otsailaren 06tik 10ra sorkuntza egonaldian*






**DAGUERRE**
Le 6e album de DAGUERRE nous invite à une découverte singulière. Portés par sa voix rauque et profonde, les mots revêtent une texture, les sons prennent des odeurs, des couleurs. DAGUERRE a voulu offrir plus qu'un album: un livre-disque illustré où les dessins de Sarane Mathis et le récit de l'écrivaine Mély Vintilhac viennent transpercer ses nouvelles chansons.
*A cette occasion, Atabal présentera une exposition des planches originales du dessinateur Sarane Mathis illustrateur du livre-disque «La nuit traversée».*

**RUN CAROLINE**
Leur musique résolument acoustique et folk, marquée par les figures du songwriting des 60's au 90's, est influencée par leurs voyages. En 2016, le groupe s'entoure de nouveaux musiciens, avec notamment un banjo, une basse et une section rythmique.

**DAGUERRE**
DAGUERREn seigarren diskoak zerbait berri ezagutzera gomitatzen gaitu. Ahots erlastua eta sakona du. Hitzek egitura jakina dute, soinuek usain eta kolore argia dute. Daguerrek disko bat baino gehiago eskaini nahi izan du. Horretarako, disko-liburua argitaratu du. Sarane Mathis-en marrazkiek eta Mély Vintilhac-en kontakizunak DAGUERREn kantu berriak indartzen dituzte.
*Karia horretara, Sarane Mathis marrazkilari eta ilustratzailearen «La nuit traversée» disko-liburuko irudi taulen erakusketa estreinatuko du Atabalek.*

**RUN CAROLINE**
Folk musika akustikoa eskaintzen du. 1960ko eta 1990eko hamarkaden arteko musikagileen eragin nabarmenak ditu. Taldekideek egin bidaiek taldearen musika inspiratu dute. 2016an, musikari berriekin osatu dute taldea, hala nola, banjo jotzaile batekin, baxu jotzaile batekin eta musikari erritmikoekin.

CHANSON

♥♥♥
*Cali*
*La Grande Sophie*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik
12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

©Julie Tomas & Sarane Mathis

JEUDI 16 FÉVRIER 20:30 OTSAILAK 16 OSTEGUNA

# GEORGIO
## + BERYWAN



**GEORGIO**
GEORGIO fait son chemin sur la scène rap actuelle. Avec des textes parfois acerbes, souvent touchants, il se démarque par un son soigné, et se dresse en «héros» d'une génération mélancolique et révoltée. En sortant «Héra», enregistré aux côtés de Angelo Foley, collaborateur régulier de Christine & The Queens, GEORGIO a réalisé un album capable de ravir autant un auditeur de Feu! Chatterton qu'un nostalgique du rap hexagonal de la fin des années 90.

**BERYWAN**
BERYWAN est un collectif qui rassemble quatre des meilleurs beatboxeurs français : Beatness (champion de France en équipes 2014), Rythmind (top 4 Français 2014 et 2015), WaWad (champion de France 2015) et MB14 (top 4 International Grand Beatbox Battle Loopstation). Si sur scène leur technique et leurs prouesses vocales sont à couper le souffle, le spectacle est véritablement musical.

**GEORGIO**
Gaur egungo rap eszenaren mundu zabalean, GEORGIO-k bere bidea jorratzen du. Soinu landuari esker, beste rap kantariengandik bereizten da. Belaunaldi malenkoniatsu eta asaldatu baten «heroi» gisa agertzen da. Bere kantuen hitzak mingarriak dira batzuetan, hunkigarriak usu. Christine & The Queens-en kolaboratzailea den Angelo Foley-rekin grabatutako «Héra» disko berria kaleratu du. Disko honek Feu! Chatterton taldearen entzule bat eta 1990eko hamarkada hondarreko Frantziako rap zale nostalgiko bat loriatuko ditu, berdin-berdin.

**BERYWAN**
Frantziako beatbox kantari hoberenak biltzen dituen kolektiboa da BERYWAN: Beatness (2014an, taldekako Frantziako txapelduna), Rythmind (2014an eta 2015ean, Frantziako lehen 4en artean), WaWad (2015ean, Frantziako txapelduna) eta MB14 (International Grand Beatbox Battle Loopstation lehen 4en artean). Oholtza gainean, beren teknika eta ahots balentriak harrigarriak dira. Baina, ez duda. Beren ikuskizuna egiazko musika emanaldia da.

RAP

❤❤❤
*Nekfeu*
*1995*

18€ / 15€ (adh-kide) en loc-aurretik
21€ / 18€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 17 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 17 OSTIRALA

# DAVID CAIROL
# + OLD SCHOOL FUNKY FAMILY





### DAVID CAIROL

DAVID CAIROL revient avec «U.N.I», un album fort, qui se veut à son image, solaire et rassembleur. De la soul, de la pop et des sonorités world qui se mêlent à la modernité du hip-hop et aux influences du reggae. DAVID CAIROL offre un savant mélange des genres, qu'il s'approprie à travers des mélodies puissantes et des textes ciselés.

### OLD SCHOOL FUNKY FAMILY

Depuis 10 ans, le OLD SCHOOL FUNKY FAMILY sème son groove sur les scènes et les festivals de France. L'octet instrumental a su, au fil de ses compositions, trouver son style : une base de Funk US secoué d'Afrobeat nigérian et de musique traditionnelle. Leur nouvel opus s'inscrit donc dans la continuité du premier: une esthétique identifiable, une musique vivante et dynamique. 11 titres, dont 8 compositions originales reflétant la devise du groupe: faire de la musique sérieusement sans se prendre au sérieux !

### DAVID CAIROL

«U.N.I» disko berriarekin itzultzen da DAVID CAIROL. Disko indartsua, beroa eta bateratzailea da, Daviden irudira. Soul, pop, hip-hop, reggae eta munduko musikak uztartzen ditu. Genero nahasketa abila eskaintzen du. Melodia indartsuen eta hitz landuen bitartez, musika ezberdinak batu eta soinu berria sortzen du. Frantsesez edo ingelesez kantatzen du.

### OLD SCHOOL FUNKY FAMILY

Badu hamar urte OLD SCHOOL FUNKY FAMILY taldeak Frantziako agertokietan eta festibaletan erritmo biziak eskaintzen dituela. Kantuak sortu arau, musikari zortzikoteak bere musika estiloa ederki landu du. Estatu Batuetako funk musika, Nigeriako afrobeat musika eta musika tradizionala nahasten ditu. Disko berria lehenaren jarraipena da : taldearen irudiarekin bat egiten du, musika bizia eta dinamikoa eskaintzen du. Hamaika kantuz osatua da diskoa. Horietarik 8 taldearen sorkuntzak dira. Horra zer dion taldearen leloak : «musika seriostasunez jotzea, bere buruaz hartua izan gabe» !

FUNKY
REGGAE
FOLK

OSFF ©Thierry Loustauneau

*Patrice*
*Ceux Qui Marchent Debout*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik
12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan



# GRÉGOIRE CAUSSÈQUE «VERSO»







## GRÉGOIRE CAUSSÈQUE

Passionné de musique, GRÉGOIRE CAUSSÈQUE s'est lancé dans la photographie fin 2015.

Très rapidement, les personnes ont été au centre de son attention et c'est donc, naturellement, qu'il a voulu montrer le quotidien des groupes de musique au travers son expo «VERSO».

11 groupes dont The Hyènes, Mars Red Sky, J.C.Satàn, Magnetix, Petit Fantôme... ont accepté sa présence discrète en studio, coulisses, balances, soirée... derrière les lumières de la scène.

Musika zale amorratua da GRÉGOIRE CAUSSÈQUE. 2015 urte hondarrean, argazkilaritzan hasi zen.

Hastapenetik, pertsonetan jarri zuen arreta, eta, naturalki, «VERSO» erakusketaren bitartez, musika taldeen egunerokoa erakutsi nahi izan zuen.

11 taldek, tartean The Hyènes, Mars Red Sky, JC Satàn, Magnetix, Petit Fantôme... estudioan, agertokietatik kanpo, soinu proben denboran, gaualdietan... hots, oholtza gaineko argietatik urrun, Grégoire-en presentzia diskretua onartu zuten.

**https://www.facebook.com/gregoirecaussequephotographies/**

**Exposition du Vendredi 17 Février au Jeudi 20 Avril 2017**
**Vernissage Vendredi 17 Février à 19h**
**+ Concert de David Cairol + Old School Funky Family**

**2017ko otsailak 17 ostiraletik apirilaren 20 ostegunera**
**Estreinaldia Otsailak 17 ostiralez, 19:00etan**
**+ David Cairol + Old School Funky Family Kontzertua**

# SAMEDI 18 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 18 LARUNBATA

# GATIBU
## + BEGIZ BEGI

Présenté par **PANDA ARTIST MANAGEMENT**-ek aurkezturik



### GATIBU
Le groupe de rock basque de Guernica et Lumo est composé d'Alex Sardui, Haimar Arejita, Mikel Caballero et Gaizka Salazar. Ils faisaient déjà partis de la scène musicale du Pays Basque dans divers groupes locaux, jusqu'en 2002 où ils décident de se réunir et de créer GATIBU. Depuis leurs premières chansons, le groupe a été créé pour être l'une des sonorités les plus populaires de la culture basque. Ils reviennent en 2016 avec l'album Aske Maitte, Aske Bizi.

### BEGIZ BEGI
Après avoir gagné le tremplin Banden Lehia (Bilbao) le groupe vient nous présenter son nouvel album dont la thématique est la mythologie basque. C'est un nouveau souffle pour BEGIZ BEGI avec un son rock progressif qui tranche avec les précédents albums et qui laisse place à de grandes plages instrumentales.

### GATIBU
Gernika-Lumoko euskal rock taldea da GATIBU. Alex Sardui, Haimar Arejita, Mikel Caballero eta Gaizka Salazar musikariek osatzen dute. Aurretik, musikari guztiak Euskal Herriko musika eszenan murgilduak ziren eta tokiko musika taldeetan jotzen zuten. Hala, 2002 urtean elkartu eta Gatibu taldea sortzea erabaki zuten. Lehen kantutik, argi eta garbi izan zuten. Euskal Herriko kultura herrikoiaren soinu banda izateko jaio zen taldea. 2016 urtean, «Aske Maitte, Aske Bizi» diskoarekin, taldea berriz ere lehen lerrora itzuli da.

### BEGIZ BEGI
Banden Lehia (Bilbo) lehiaketa irabazi ondoren, euskal mitologia tematika gisa hartzen duen diska berri hau aurkeztera heldu zaigu taldea. BEGIZ BEGI-k duen rock progresibo soinu berriak aurreko disketatik aldaketa argia dakar eta pasarte instrumental luze batzuei lekua uzten die.

ROCK
EH

♥♥♥
*Su Ta Gar*
*Ken Zazpi*
*Gozategi*

15€ en loc-aurretik
18€ sur place-bertan
unique bakarra

PANDA


ESPRIT MUSIQUE (n.m) :
GAMME DE PRIVILÈGES ACCESSIBLES GRÂCE À NOS CARTES BANCAIRES.
Bénéficiez de 20 à 30% de réduction sur plus de 10 000 places de concerts par an*.
Achetez vos places en avant-première ou profitez des meilleures places pour les grands événements musicaux de l'année*.
Tentez de gagner l'une des nombreuses places de concerts mises en jeu chaque mois dans toutes les régions*.
RENDEZ-VOUS SUR espritmusique.fr
CAISSE D'EPARGNE
LA BANQUE. NOUVELLE DÉFINITION.
*Offres soumises à conditions, tarifs réservés aux porteurs de carte de paiement Caisse d'Epargne. Sous réserve de places disponibles sur espritmusique.fr.
BPCE, Société Anonyme à directoire et conseil de surveillance au capital de 155 742 320 euros
Siège social : 50 avenue Pierre Mendès France 75201 Paris Cedex 13 – RCS Paris n°493 455 042 - Photo : Romain Leblanc.


LE MANGE DISQUE
Cd Vinyl
Café Resto
Magasin de disques : Neuf et occasion
Platines Vinyles et accessoires
Petit déjeuner – Déjeuner – Goûter
Cave à Vin – Bières – Spiritueux
Ouvert du Lundi au Samedi – 9 h / 19 h
5 rue des Prébendes 64100 BAYONNE
(Près du cloître côté médiathèque)
Facebook mange-disque bayonne
Tél. 05 59 29 61 02 ou mangedisque@outlook.fr

# Stages Vacances Oporretako Ikastaldiak



## ÉVEIL MUSICAL *3-5 ans*
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *10h>11h*
***10€/séance (8€ adhérent)***

L'éveil musical permet aux plus jeunes de s'initier au monde de la musique de manière ludique et sensorielle. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier.

## LEHEN HURBILTZEA *3-5 urte artekoak*
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera** *10:00>11:00*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)***

Musikara lehen hurbiltzearen bitartez, haur gazteenek musikaren munduan lehen irakaspenak jasotzeko aukera dute, manera jostagarrian eta sentsorialean. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak eta munduko musiken ezagutza badira.



## INITIATION MUSICALE *6-9 ans*
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *11h>12h*
***10€/séance (8€ adhérent)***

L'initiation musicale fait le lien entre la découverte de l'éveil musical et l'apprentissage d'un instrument. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier, ainsi que la découverte et la pratique des différents instruments proposés à l'école de musique d'Atabal (guitare, batterie, clavier...).

## LEHEN IRAKASPENAK *6-9 urte artekoak*
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera** *11:00>12:00*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)***

Musikara lehen hurbiltzearen eta musika tresna baten ikastearen arteko lotura egiteko balio dute lehen irakaspenek. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, musika tresnen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira. Gainera, Rock Eskolan ikasi daitezkeen musika tresna ezberdinak ezagutzeko eta jotzeko parada eskainia da (gitarra, bateria, teklatuak...).



## PEINTURE en MUSIQUE *5 - 11 ans*
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *10h>11h / 11h15>12h15*
***10€/séance (8€ adhérent)*** Animé par Franck Cazenave

Franck Cazenave propose des ateliers de peinture pensés comme de véritables workshops où l'expression artistique et la créativité sont à l'honneur. En musique, avec la musique, chaque enfant est mis en situation de créer une réalité visuelle qui lui est propre, en toute liberté !
*Matériel et tablier fournis (veillez à ne pas habiller vos enfants avec vêtements et chaussures neufs).*
*Playlists préparées spécialement en collaboration avec Atabal.*

## MUSIKA ETA TINDUA TAILERRA *5 - 11 urte artekoak*
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera**
*10:00>11:00 / 11:15>12:15*
***Saioko 10€ (8€ kideentzat)*** Franck Cazenave -ek animaturik



Franck Cazenave-ek egiazko workshop batzuen gisako pintura tailerrak eskaintzen ditu. Bertan, adierazpen artistikoa eta sormena ohoratzen ditu. Musikaz lagundurik eta askatasun osoan, haur (edo nerabe) oro nor bere errealitate bisuala sortzeko egoeran jarria da !
*Materiala eta taulier edo mantala eskainiak (ez itzazue haurrak arropa eta zapata berriekin jantzi).*
*Atabalekin elkarlanean, kantu zerrenda bereziak hautatuak izan dira.*

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



## ATELIER RADIO *11-17 ans*
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *10h>12h*
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par Franck Deschamps, animateur, technicien et producteur radio

Lors de cet atelier, qui sera réalisé dans de véritables conditions techniques d'un studio, vous pourrez vous initier à la présentation et à la découverte de la radio: animation micro, réalisation technique, montage et enregistrement d'une émission.
Une expérience participative, ludique et éducative où chaque participant repartira avec ses enregistrements audio.

## IRRATI TAILERRA *11 – 17 urte artekoak*
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera** *10:00>12:00*
***Asteko 50€ (40€ kideentzat)***
Irrati animatzailea, teknikaria eta ekoizlea den Franck Deschamps-ek animaturik



Estudio bateko egiazko baldintza teknikoetan iraganen den tailer horretan, irratiaren aurkezpenean eta ezagutzan lehen irakaspenak jasoko dituzue: mikrofonoaren bitartez animazioa, errealizazio teknikoa, muntaketa eta emankizun baten grabaketa. Esperientzia parte hartzailea, ludikoa eta hezitzailea. Parte hartzaile bakoitzak bere soinu grabaketak etxera eramaten ahalko ditu.

## ATELIER RADIO 2.0 *11-17 ans*
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *14h>16h*
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par Franck Deschamps, animateur, technicien et producteur radio

Pour ceux qui ont suivi le premier Atelier Radio et qui souhaite se perfectionner.
Prise de son voix et de son traitement, montage audio d'un élément radio en multipiste, réalisation technique d'une émission en direct, animation micro en direct, diffusion sur internet en streaming audio.



## IRRATI TAILERRA 2.0 *11 – 17 urte artean*
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera** *14:00>16:00*
***asteko 50€ (40€ kideentzat)***
Irrati animatzailea, teknikaria eta ekoizlea den Franck Deschamps-ek animaturik

Lehenengo Irrati Tailerrean parte hartu zutenentzat eta ikasketan sakondu nahi dutenentzat.
Ahotsen grabaketa eta tratamendua, irratiko osagai baten audio muntaketa pista anitzeko nahasketa-mahaian, zuzeneko emankizun baten teknika errealizazioa, zuzeneko animazioa mikrofonoarekin, internet bidezko hedapena audio streaming formatuan.

## ATELIER DJ/MAO *10-17 ans*
**[MUSIQUE ASSISTÉE PAR ORDINATEUR]**
**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *10h>11h / 11h>12h*
***50€/semaine (40€ adhérent)***
Animé par BOOM TCHACK, labo de création musicale et artistique



Les ateliers DJ/MAO permettent de traverser toutes les étapes de la création de morceaux à partir des composants de la musique électronique.
Les jeunes pratiqueront percussion, mélodie et voix. Ils termineront la semaine par un enregistrement et repartiront avec leur propre CD!

## DJ/OLM TAILERRA *10-17 urte artekoak*
**[ORDENAGAILUZ LAGUNDURIKO MUSIKA]**
**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera**
*10:00>11:00 / 11:00>12:00*
***asteko 50€ (40€ kideentzat)***
BOOM TCHACK-ek animaturik (musika eta arte sorkuntza laborategia)



DJ/OLM tailerrean, musika elektronikoaren osagaietatik abiatuz, kantu baten sorkuntzaren urrats guztiak ikusteko aukera badago.
Gazteek perkusioak, melodiak eta ahotsak landuko dituzte. Astea grabaketa batekin bururatuko dute eta beren diskoarekin joango dira etxera.

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29



# ATELIER DE PRATIQUE COLLECTIVE

**Lundi 20 - Vendredi 24 Février** *10h30>12h / 14h>15h30*

***50€/semaine (40€ adhérent)***

Inscription avant le 10 Février

Pour ceux qui n'ont pas la possibilité de venir aux ateliers tout au long de l'année, Atabal vous propose une formule sur une semaine qui vous permettra d'aborder le jeu en groupe. A partir d'un répertoire donné vous travaillerez le jeu, la mise en place, l'interprétation.
*(Prérequis : au minimum un an de pratique instrumentale)*

# TALDEAN JOTZEKO TAILERRA

**Otsailaren 20etik 24ra, astelehenetik ostiralera**

*10:30>12:00 / 14:00>15:30*

***asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Izen emateak 2016/02/10a aitzin



Urte osoan tailer ezberdinetara hurbiltzeko aukerarik ez duzuenei taldean jotzeko parada eskaintzen duen aste bateko formula proposatzen dizue Atabalek. Hautatutako kantu zerrenda batetik abiatuz, kantu baten plantan ematea, jokoa eta interpretazioa landuko dituzue.
*(Baldintza : musika tresna gutienez urte batez landu izana)*

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
yann@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.22

# ÉVEIL MUSICAL *3-5 ans*

**Lundi 27 Février - Vendredi 03 Mars** *10h>11h*

***50€/semaine (40€ adhérent)***



L'éveil musical permet aux plus jeunes de s'initier au monde de la musique de manière ludique et sensorielle. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier.

# LEHEN HURBILTZEA *3-5 urte artekoak*

**Otsailaren 27etik martxoaren 03ra, astelehenetik ostiralera**

*10:00>11:00*

***asteko 50€ (40€ kideentzat)***

Musikara lehen hurbiltzearen bitartez, haur gazteenek musikaren munduan lehen irakaspenak jasotzeko aukera dute, manera jostagarrian eta sentsorialean. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak eta munduko musiken ezagutza badira.



# INITIATION MUSICALE *6-9 ans*

**Lundi 27 Février - Vendredi 03 Mars** *11h>12h*

***50€/semaine (40€ adhérent)***

L'initiation musicale fait le lien entre la découverte de l'éveil musical et l'apprentissage d'un instrument. Jeux musicaux, chant, percussions, construction d'instruments et découverte des musiques du monde sont au programme de cet atelier, ainsi que la découverte et la pratique des différents instruments proposés à l'école de musique d'Atabal (guitare, batterie, clavier...).

# LEHEN IRAKASPENAK *6-9 urte artekoak*

**Otsailaren 27etik martxoaren 03ra, astelehenetik ostiralera**

*11:00>12:00*

***asteko 50€ (40€ kideentzat)***



Musikara lehen hurbiltzearen eta musika tresna baten ikastearen arteko lotura egiteko balio dute lehen irakaspenek. Tailer honen egitarauan, musika jokoak, kantua, perkusioak, musika tresnen fabrikatzea eta munduko musiken ezagutza badira. Gainera, Rock Eskolan ikasi daitezkeen musika tresna ezberdinak ezagutzeko eta jotzeko parada eskainia da (gitarra, bateria, teklatuak...).

**Renseignements et Réservations Xehetasunak eta erreserbatzeak**
brice@atabal-biarritz.com // 05.59.41.73.29

VENDREDI 03 MARS 12:00 MARTXOAK 03 OSTIRALA

# LE GRAND LIVE #4

 

***48h d'émission radio en direct d'Atabal, produite et animée par le duo David et Franck.***

-Musiciens et groupes en show-case.
-Djs en live.
-Interviews d'artistes, de musiciens, de djs, et d'invités locaux, issus de la radio, de l'événementiel, du multimédia, de la communication, de la restauration, de la discothèque, de salles de concerts, de spectacles et de cinémas.
-Jeux et cadeaux avec nos différents partenaires.
-Démonstrations artistiques et sportives.
-Intervenants burlesques et surprises.
-Des direct-live audio/vidéo depuis des établissements de Biarritz.

Suivez **LE GRAND LIVE 2017** en audio et vidéo sur www.le-grand-live.com et sur la page Facebook.

***David eta Franck bikoteak ekoizturik eta animaturik, Atabaletik zuzenean, 48 oreneko irratsaioa.***

-Musikarien eta taldeen aurkezpen kontzertuak.
-DJak zuzenean.
-Irratigintzatik, gertakarietatik, multimedietatik, komunikaziotik, ostalaritzatik, diskoteketatik, kontzertu aretoetatik, ikuskizunetatik eta zinema geletatik jin tokiko gomiten, artisten, musikarien eta DJen elkarrizketak.
-Gure partaide ezberdinekin, jokoak eta opariak.
-Arte eta kirol erakustaldiak.
-Gomita irrigarriak eta sorpresak.
-Biarritzeko eraikin batzuetatik, ikus-entzunezko zuzeneko saioak.

www.le-grand-live.com webgunean eta gure Facebook orrialdean, **2017**ko **GRAND LIVE** gertakariaren ikus-entzunezkoa jarrai ezazue.

RADIO

©J2R

## MERCREDI 08 MARS 20:00 MARTXOAK 08 ASTEAZKENA

# VALD
## + GUEST

*En résidence de création du 04 au 08 mars // Martxoaren 04tik 08ra sorkuntza egonaldian*



**VALD**
Rappeur de l'absurde frisant le burlesque, rimeur détaché, presque désabusé, VALD est aujourd'hui le nouveau souffle du rap français. Jonglant comme personne avec le premier, le second et même le troisième degré, il est le miroir d'une nouvelle génération trop ancrée dans un monde sans idéal où sexe, drogue et jeux vidéo semblent être les seuls échappatoires. VALD c'est une volonté de traduire le réel de son époque sur des samples old school aussi bien que sur de gros beats traps frayant avec l'électro. Complexe, insaisissable, simple, efficace, beaucoup d'adjectifs pour un seul homme, mais qui lui vont bien.

**VALD**
Absurdoa abesten duen rap kantaria da VALD. Burleskotik hurbil ibiltzen da, errima egile axolagabea da, etsitua kasik. Frantziako rap eszenari hats berri bat eman dio. Bere hitzak ez dira beti hitzez hitz hartu behar. Idealik gabeko mundu batean bizi den belaunaldi berriaren isla da. Gazteria horren ihesbide bakarrak sexua, droga eta bideo jokoak direla dirudi. VALD artistak garai honen errealitatea salatu nahi du. Hala, eskola zaharreko sanplerrak eta musika elektronikotik hurbil diren traps beats erritmo astunak hedatzen ditu. Konplexua, ulertezina, sinplea, efikaza... pertsona bakarrarendako izenondo anitz dira, baina, guztiak ongi doazkio.

RAP

♥♥♥
*Orelsan*
*Klub Des Loosers*

22€ / 19€ (adh-kide) en loc-aurretik
25€ / 22€ (adh-kide) sur place-bertan

VENDREDI 10 MARS 20:30 MARTXOAK 10 OSTIRALA

# SUPERPOZE
## + CLÉMENT BAZIN + ODEI

FAIR : LE TOUR





**SUPERPOZE**
Avec Fakear et Thylacine, SUPERPOZE a sonné le renouveau d'une jeune scène électronique française qui a eu l'élégance de préférer les contemplations downtempo à l'appel du dancefloor pur et dur. Plus rêveur que raveur, les mélodies planent sur le velours soyeux du beatmaking.

**CLÉMENT BAZIN**
Après 2 ans de tournée avec Woodkid, CLÉMENT BAZIN sort son EP, «Return to Forever» réunissant des morceaux marqué par l'électro pointue de Jamie XX ou par les rythmes calypso de Trinidad. Sur une base de beatmaking, les samples de voix transportent et laissent libre cours aux envolées électro-tropicales.

**ODEI** est la symbiose audacieuse d'Arnaud Biscay, batteur jazz et afro-funk, du pianiste classique Maxime Hoarau, et de Matthys, producteur électro aux influences progressives.

**SUPERPOZE**
Fakear eta Thylacine artistekin batera, Frantziako musika elektronikoaren berpiztea ekarri du. Izan ere, betiko dantzalekuaren deiari ihardestea baino, artista frantses horiek kontenplaziozko erritmo astunak hobetsi dituzte. Ordenagailuan sortutako melodia goxoak eskaintzen ditu.

**CLÉMENT BAZIN**
